

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4051

AGINDUA, 2023ko ekainaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, itunpeko ikastetxe pribatuek 2023-2024 ikasturtean Ulibarri Programan sartzeko edo bertan jarraitzeko dirulaguntza-deialdia egiten duena.

Ekainaren 11ko 84/2019 Dekretuak (ekainaren 21eko EHAA) hizkuntza-normalizazioko Ulibarri Programa arautzen du.

Aipatu dekretuaren 8.d) artikulua zera dio: «Hezkuntza-ituna duten ikastetxe pribatuetan, hezkuntza arloko eskumenak dituen Sailak dirulaguntza emango du ikastetxeko hizkuntza normalizazioko arduradun teknikoari bere eskola-emankizunetan esleitu zaizkion ezinbesteko liberazio-orduen kostua ordaintzeko, dekretu honen 20. artikuluan xedatutakoarekin bat».

Bestalde, hau dio Dekretuaren 18.1 artikulua lehenengo puntuak: «Dirulaguntza deialdia hezkuntza alorreko eskumenak dituen sailburuaren agindu baten bidez egingo da. Deialdi horretan ezarriko dira programari esleitutako aurrekontu-kreditua eta eskabideak aurkezteko epea». Deialdi hau 2023. urteko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago. Horrez gain, Dekretuaren 27.3 artikulua dio itunpeko ikastetxe pribatuentzat aipatutako prozedurak agindu bakarrean iragarri ahal izango direla, edo bereizitako deialdietan.

Deialdi honen prozeduran, xedapen hauek izango dira aplikagarri: hizkuntza-normalizazioko Ulibarri Programa unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan arautzen duen ekainaren 11ko 84/2019 Dekretua (ekainaren 21eko EHAA); Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren eta berorren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren oinarrizko xedapenak; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren VI. titulua, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen.

Hortaz, agindu honen bidez ezartzen dira, batetik, 2023-2024 ikasturtean Ulibarri Programarako eta programa horretan parte hartuko duten ikastetxeentzako baliabideak, eta, bestetik, programan sartu nahi duten ikastetxeentzako prozedura eta balorazio-irizpideak.

Hori dela eta, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta diru-baliabideak.

1.– Agindu honen xedea da itunpeko ikastetxe pribatuei dei egitea 2023-2024 ikasturtean Ulibarri Programan sartzea edo bertan jarraitzea eskatzeko.

Deialdi honi dagokion araudia unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan hizkuntza-normalizazioko Ulibarri Programa arautzen duen ekainaren 11ko 84/2019 Dekretuan jasota dago.

2.– Hezkuntza Sailak gehienez 1.225.000 euro erabiliko ditu deialdi honetan Ulibarri Programan sartuko diren edo bertan jarraitu nahi duten itunpeko ikastetxeei dirulaguntzak esleitzeko.

2. artikulua.– Eskabideak.

1.– Ulibarri Programan sartu edo bertan jarraitu nahi duten itunpeko ikastetxeek eskabidea egin behar dute. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, agindu hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarrietan jasotako baldintzak espresuki eta formalki onartzea dakar.

2.– 2023-2024 ikasturtean Ulibarri Programan sartu nahi duten ikastetxe berriek, eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

a) Ikastetxearen hizkuntza-normalizaziorako proiektua (2022-2026), bat etorritik ekainaren 11ko 84/2019 Dekretuan xedatutakoarekin eta Berritzeguneetako hizkuntza-normalizazioko aholkulariek emandako jarraibideekin, eta, betiere, www.ulibarri.euskadi.eus webgunean dagoen eredia erabilita.

b) Proiektuak ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren edo ikastetxeko Eskola Kontseilua-
ren onarpena baduela egiaztatzen duen agiria.

c) Proiektua ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren ildo nagusietan txertatzen dela egiaztatzen duen ikastetxeko zuzendaritzaren agiria.

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxan daude eskuragarri izapideak egiteko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak, eta bertatik sartzen da eskabide-inprimakira; helbide honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0173221>

3.– Jadanik Ulibarri Programan dauden eta 2023-2024 ikasturtean ere bertan jarraitu nahi duten ikastetxeek honako helbide honetan jasotako arauen arabera aurkeztu beharko dute eskabidea: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0173222>

4.– Eskabidearen ondorengo izapideak, bide elektronikoz egindakoak, jakinarazpenak eta justifikazioak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoren «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

6.– Eskabidea elektronikoki izapidetu ahal izango da ordezkari baten bidez. Horretarako, haren ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da; helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>

3. artikulua.– Erakunde eskatzaileen betebeharrak eta justifikazioa.

1.– Ikastetxeek, Ulibarri Programan lehenbizikoz sartuko direnek nahiz bertan jarraitu nahi dutenek, hizkuntza-normalizazioko 2023-2024 ikasturteko plana aurkeztu beharko dute 2023ko irailaren 1etik 2023ko irailaren 29ra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Era berean, 2024ko ekainaren 3tik 2024ko ekainaren 28ra bitartean, 2023-2024 ikasturteko memoria aurkeztu behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– 2024ko ekainaren 3tik 2024ko ekainaren 28ra bitartean, 2023-2024 ikasturtean hizkuntza-normalizazioko ikastetxeko planaren arduradun tekniko denaren (HNAT) liberazio-ordu diruz lagunduak estaltzeko kontratatutako irakasleen nominak aurkeztu beharko dituzte, egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

a) 2023ko irailetik 2024ko ekainera arteko nominak aurkeztu behar dira, biak barne.

b) Aurkeztu beharreko nominak hizkuntza-normalizazioko ikastetxeko planaren arduradun teknikoa (HNAT) ordezkatzeko kontratatutako irakasleenak dira.

c) Ikastetxean planaren arduraduna ordezkatzeko kontratatutako irakasleen nominekin ordainketa eskuordetutik kanpo egon beharko dute.

4. artikulua.– Justifikazio-inprimakia.

Ikastetxeek helbide honetan jasotako justifikazio-inprimakia bete eta bidali beharko dute: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0173222>

5. artikulua.– Jarraipen-batzordearen osaera.

– Batzordeburua: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria: Amaia Agirre Pinedo.

– Bokalak:

a) Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako Euskara eta Eleaniztasunerako zerbitziburua: Alberto Telleria Zabala.

b) Euskara eta Eleaniztasunerako Zerbitzuan Ulibarri Programaz arduratzen diren bi teknikari: Alfredo Castresana Herran eta Maitane Izagirre Zubimendi.

c) Berritzeguneetako normalizazioko bi aholkulari (HNA) eta Berritzegune nagusiko hizkuntza-normalizazioko programaren arduraduna: Rakel Iruarrizaga Barragan, Jasone Aldekoa Arana eta Joseba Ibarretxe Fernandez de Larrinoa.

d) Egoki iritzi gero, hizkuntza normalizazioaren arloan itzala duten adituek ere parte hartu ahal izango dute batzordean, gehienez bik.

– Idazkaria: b) letran aipatutako teknikarietako bat.

6. artikulua.– Bete beharreko araudia.

Deialdi honi dagokion araudia unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan hizkuntza normalizazioko Ulibarri Programa arautzen duen ekainaren 11ko 84/2019 Dekretuan dago jasota.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari; beraz, honen aurka, berraztertze errekurtsoa jar dakioko Hezkuntzako sailburuari hilabeteko epean, EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta bi hilabeteko epean.

2023ko abuztuaren 28a, astelehena

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 21a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA
 ESKABIDE ELEKTRONIKOA
 Ulibarri programa – Berriak (2023-2024)

Instrukzio-organo honi zuzenduta:

IKASKUNTZAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ZUZENDARITZA

Datu pertsonalak

Titularra

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="checkbox"/> Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea		

Ordezkarria

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="checkbox"/> Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea		

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: «Nire karpeta» ataleko jakinarazpen eta komunikazioen erretilura igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat behar da.

10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikoa batera sartzen ez bazara, ez duzula onartu ulertuko dugu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta Administrazioak prozedura izapidetzen jarraituko du.

Abisuak jasotzeko datuak

Posta elektronikoa	
Mugikorra	

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza

Euskara Gaztelania

Oinarritzko datuak

Zein lurralde / probintzian dauden erakunde eskatzailearen datu fiskalak	
Ikastetxearen kodea:	

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin, eta hark eman (atal honetako datuak eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin, eta erantzunaren zain dago (atal honetako datuak eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Beste adierazpenak batzuk:

- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea gaitasungabetzen duen inongo zehazpen penal edo administratiborik.
- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea gaitasungabetzen duten legezko debekurik, beren-beregi aipatuta sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak.
- Itunpeko ikastetxea da.
- Ez dago oraindik izapidetzen ari den inolako itzulketa- edo zehapen-prozeduratan sartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo beraren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan.
- Betetzen ditu indarrean dagoen legediak ezarritako eskakizunak.
- Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak dira, eta osorik daude, baita aurkezten duen dokumentazioa ere, eta bere gain hartzen du dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Datuen babesari buruzko informazio oinarritzakoa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren dirulaguntzak.

Arduraduna: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Hezkuntza berriztatzearen arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Hartzaileak: Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk. Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua.

(www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-capa2-eu.shtml).

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra.

(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

Honako dokumentu hau kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Emate-data	Emate-organoa

Ofizios egiaztatzea

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organok ofizios egiaztatuko ditu administrazio eskudunean datu hauek:

- ✓ Gizarte Segurantzari dagokiona ordainduta izatea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN)
- ✓ Zerga-betebeharrak ordainduta izatea (Euskal Foru Aldundiak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia)

Honek elektronikoki izenpetuta:

--

II. ERANSKINA
ESKABIDE ELEKTRONIKOA
Ulibarri programa – Berritzeak (2023-2024)

Instrukzio-organo honi zuzenduta:

IKASKUNTZAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ZUZENDARITZA

Datu pertsonalak

Titularra

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="checkbox"/> Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea		

Ordezkarria

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="checkbox"/> Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea		

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: «Nire karpeta» ataleko jakinarazpen eta komunikazioen erretilura igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat behar da.

10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikoa batera sartzeko ez bazara, ez duzula onartu ulertuko dugu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta Administrazioak prozedura izapidetzen jarraituko du.

Abisuak jasotzeko datuak

Posta elektronikoa	
Mugikorra	

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza

Euskara Gaztelania

Oinarritzko datuak

Zein lurralde / probintzian dauden erakunde eskatzailearen datu fiskalak	
Ikastetxearen kodea:	

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak:

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin, eta hark eman (atal honetako datuak eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin, eta erantzunaren zain dago (atal honetako datuak eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Beste adierazpenak batzuk:

- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea gaitasungabetzen duen inongo zehazpen penal edo administratiborik.
- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea gaitasungabetzen duten legezko debekurik, beren-beregi aipatuta sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak.
- Itunpeko ikastetxea da.
- Ez dago oraindik izapidetzen ari den inolako itzulketa- edo zehapen-prozeduratan sartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo beraren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan.
- Betetzen ditu indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak.
- Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak dira, eta osorik daude, baita aurkezten duen dokumentazioa ere, eta bere gain hartzen du dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Datuen babesari buruzko informazio oinarritzkoa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren dirulaguntzak.

Arduraduna: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Hezkuntza berriztatzearen arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Hartzaileak: Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk. Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua. (www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-cap2-eu.shtml).

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra.

(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

Honako dokumentu hau kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Emate-data	Emate-organoa

Ofizios egiaztatzea

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organook ofizios egiaztatuko ditu administrazio eskudunean datu hauek:

- ✓ Gizarte Segurantzari dagokiona ordainduta izatea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN)
- ✓ Zerga-betebeharrak ordainduta izatea (Euskal Foru Aldundiak eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia)

Honek elektronikoki izenpetuta:

--